

VI. JAUTARKOL OLERKI SARIA-ERRENTERIAKO
ONENARI SARIA
IZENA: OIER GUILLAN BERMUDEZ
IZENGOITIA: "OUSSOUYE"
NONGOA: ERRENTERIA



Oier Guillan Bermudez.

ISILTASUNAREN HIZTEGIA

I.

Emakume bat erdi biluzik
udaberrian goizez esnatzen

haren ondoan bakardadea isilik

isiltasunean begiak
isiltasunean ezpainak
isiltasunean azala

mundua hormen gabeziaz
mende berria palestinarrak erahiltzen
egunkari zaharrak lurlean boten azpian

zerua indarge irekitzen da
horma arrakalatuen ertzetik

bien artean
emakume bat erdi biluzik
udaberrian hiria asmatzen
etorkizuna kezkatutik besoetan

lehoiaren bestaldean
pertsiana eraikitzen
balkoiaren azpian
begien eztanda motela
munduko hizkeren anabasa
hiri erraldoian

egunak dakartzan berri txarrak
egunkarietatik
irratietatik
telebistetatik
isiltasunera ekarriaz

bakardadea
udaberrian goizez esnatzen den
emakume erdi biluziaren altzoan

II.

Bakardadea ez da sekula bakarrik agertzen
oroitzapen gozoak eta gaiztoak dakartza
txuri-beltzeko orbainen albunean

irudiak
landroak
begi kolore aldakorrean bildutako
hosto lehorrak

emakume batek
gabezien hiztegia hartu du
beste behin
eskuen artean

urdina:
barnera begiratzeko balio du

erreka:
fereken azpiko zain ikusezinak
itsasorik gabeko zirkuitu infinitoan

muga:
urrats zuriak hondartza beltzean

bakardadea:
norbaitek zu
alde batera uztea

bakardadea aukeratua denean
beti dator lagunduta

lerro hauek idazten dituen unean
tracey chapman jauzten da bozgoragailuetatik
ez du haren hizkuntza ulertzen
ezta beharrik ere

bakardadea ez da sekula bakarrik agertzen

VI. JAUTARKOL OLERKI SARIA-BIGARREN SARIA
 IZENA: IKER LAIN CARRASCOSA VACAS
 IZENGOITIA: "KARRAX"
 NONGOA: ELGOIBAR



Iker Lain Carrascosa Vacas.

EZIN EZKUTATU

Sortalderantz luzatzen da
 Itzal erkin bat... nonbait
 -gauaren bular idorretan-
 Ezkutatu nahian:
 ...Zura lerrokatuen
 Zirrikituaren artetik
 Jendetzaren itzal
 Itsuengandik itzuri doa...
 Baina ezin inon ostendu;

Argizpi ankerrak bere
 Masail azal aiherga,
 Bere hezur hegien haragi
 Eza lotsaraztean...
 Bere aldaka zorrotza,
 Bere saiheitsak, bere bihotza,
 Bere hanka-beso luze,
 Mehe, amaigabeak...
 NON, NOLA EZKUTATU?

Ispiluen iruzur zuri eta
 Malko mahelak
 Aienatu begirada,
 Xede eta fedeak,
 Mesprezuz jasoko dituen
 Betazalezko altzo maltxor,
 Narruzko nini errukior
 Edo begizulo xaloak
 Saihestu ezinean.

Bere fereka herabeak
 Izerdi hatsak daramatzanean
 Koxka ilun, lizunen doinuan...
 Inoiz somatu ez dituen musu
 Eta laztan lausoen ilusioak
 Hodei artalde hantu eta doilor
 Gisa agertzerakoan...
 NON, NOLA EZKUTATU?

Pinpirin laztanak bailiran,
 Musu minaren osin sakonak
 Haize apurrak eskaintzen dizkio
 Bizi printzak atzeman uste eta
 -Gupida arrastorik ezean-
 Pairamendurik latzena
 Une, minutu, mende
 Batzuez luzatzeko beste...

Eta garrasi gura zistorrak
 Amorru antzuak ernaltzean,
 Malenkoniaren hozkirriak
 Behialako mamuño
 Eta ingumak esnaraztean,
 Betile hits amilduak,
 Errai hostagabetuak
 NON, NOLA EZKUTATU?

Ilbeheraren ezpainetan agur gozoa dantzu:
 Bere gabezi herratuan ezkuratzerik baleuka
 sikiera...